Artzape
getariarron topagunea

2018ko urria

185. zbk

# HARRALDEREN AGURRA, ZERBAIT BERRIAREN SORRERA
## ANE CAMPOS AMETSETIK HURBILAGO

**Astillero**
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
*Parrillan espezialitatea*
Kaia, 1
20808 GETARIA
Tel.: 943 14 04 12

barne diseinua interiorismo
Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

Katrapona 4
Tel. 943 140 409
info@katrapona.com
www.katrapona.com
KATRAPONA

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

portu
nagusia 12
20808 getaria
943140285

MAISOR
*Kantauriko esperientzia*
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

PINTXO GOXOAK
ITSASKIAK DASTATZEKO EDO ERAMATEKO
GETAKA
GETARIAKO PRODUITS EXPRESSION
KALE NAGUSIA 35. GETARIA - TEL.: 943 02 16 13
WWW.GETARIAEXPERIENCE.COM
WWW.GETAKA.ES

K
KAIA KAIPE
JATETXEA RESTAURANTE
Arnao generala, 4 20808 Getaria // 943 14 05 00 // www.kaia-kaipe.com

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
Mobila: 652 775 061
E-posta: euranga@getaia.com

SALANORT
MAESTROS CONSERVEROS
KALE NAGUSIA 22
GETARIA
943 14 06 24
tienda.getaria@salanort.com
Síguenos en FACEBOOK
www.salanort.com

# EDITORIALA ETA AURKIBIDEA

14-16 Erreportajea: Harralderen itxiera

20 Bi hitzetan: ondo birziklatzeko aholkuak

4 Salberak Itsaskabrari
5 Getariako Hitza
6 Iritzia: Saioa Martinez de Lahidalga
7 Ize ez, ta berriketan
8-9 Klik batean
10-13 Elkarrizketa: Ane Campos Andueza
14-16 Erreportajea: Harralderen itxiera
18 Elan Euskadi
19 Historiaren katebegiak
20 Bi hitzetan
21 Diseinua
22 Farmaziaren aholkuak
23 Txapakalezka
24 Komikia
25 Zer jan, hura izan
26 Agenda

2018ko urria 185. zbk

Artzape
getariarron topagunea

[Argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea
[Egoitza] Krixketaneko Iturrigaina 1 - Eskualtxeta Kulturgunea
[Kontaktua] 943 000 548 / artzape@topagunea.com
[Erredakzioa] Iure Eizagirre eta Joseba Fuentes.
[Lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Jon Ander de la Hoz, Josune Urresti, Nerea Kamio eta Unai Lorenzo.
[Kolaboratzaileak] Aitor Irigoien, Amaia Irazabal, Andres Alberdi, Beñat Gereka, Edurne Irigoien, Elan Euskadi GKE, Ereiten Kultur Zerbitzuak, Garbiñe Ibarbia, Getariako Eskubide Sozialen Karta, Getariako Udal Liburutegia, Goiatz Lazkano, Iturzaeta Herri Eskola, Jon Ander de la Hoz, Joxi Erauskin, Kepa Iribar, Markos Aizpuru, Mikel Mugika, Saioa Martinez de Lahidalga, Urritza Aisialdi Taldea, Uxue Alberdi, Uxoa Irigoien, Xabi Insausti eta Zigor Saizar.
[Diseinua] Aritz Paredes eta Xabier Isasti.
[Inprimategia] Gertu (Oñati)
[Tirada] 365 ale
[Lege gordailua] SS-504/01
[ISSN] 1578-469X

ARTZAPE ALDIZKARIAk ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratzen diren iritziak.

GETARIAKO UDALAK, FORU ALDUNDIAk eta EUSKO JAURLARITZAk diruz lagundutako aldizkaria.

Getariako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

ZIGOR SAIZAR

# Igelak egosten

Jonan, ikusi diat —edo hobe esanda, entzun diat—, uda honetan lanean jo eta su ibili haizela. Hala ere, bazirudik gero eta ezohikoagoa dela gazteek udan lana egitea, batik bat ikasle garaian baldin bazeudek. Ohikoagoa omen dek hortik bidaiatzen ibiltzea, mundua ezagutzea, esperientzia aberasgarriak izatea, bizitzaz gozatzea, alegia. Ah, hori bai, "nire diruarekin".

"Nire diru" horrek sortzen zizkidak buruhausteak: lanik ez badu egin, ez neguan, ez udan, nola "irabazi" du bere dirua? Hau PPko B kaxak baino misterio handiagoa dek.

Ikerketarekin jarraitzeko, boladan jarri den beste kasua jarriko diat: Batxilergoa gainditu dik gazteak, baita selektibitatea ere, ekainean, eta ondo merezitako ikasketa bidaia egitera ziak, Eivissa, Mallorca, Estokolmo, Praga, Maroko... Bidaiaren kostua 600€, batez beste; horri gehitu aste horretako gastuak... *Pitosyflautas,* 1.000€ lagunekin ikasketa bidaia egiteko. Nondik atera dizkik gazteak bidaia ordaintzeko xoxak? Santomasetan txistorra postua jarriz? Tonbola antolatuz? Kamiseta, rifa, polboroi edo bonboiak salduz? Ez ba, "nire dirutik"! Hori bai, agian gurasoak uda horretan oporretara joan gabe.

Zer gertatuko huke, horrela ohitu diren gazte hauei, lanean hasten direnean, benetan "beraien diruaren" zati bat edo dena gurasoek etxean uzteko eskatuko balieke, bertako gastuak ordaintzeko? Ez diat imajinatu nahi.

Egungo gurasoak zerbait oso gaizki egiten ari gaituk gure seme-alaben hazkuntzan eta hezkuntzan. Mobila galdu zaizula? Tori berria. Bizikleta lapurtu dizutela? Hemen bestea. Txaketa ahaztuta utzi duzula? Goazen erosketak egitera... Gure seme-alabei bizitza errazagoa egiten ari garelakoan, ez gaituk konturatzen igelak lapikoan egosten ari garela ur-epeletan, goxo-goxo, eroso, hotzik pasa gabe, frustraziorik gabe, sufrimendurik gabe, esfortzurik gabe... halako batean ura irakiten hasi arte. Utz ditzagun igelak lapikotik kanpo, zuhaitzetara igotzen eror daitezela, hotza pasa dezatela... babarrunak heltzetik ateratzen ikas dezatela.

JON ANDER DE LA HOZ

# Egositako igelak

Ontzat hartu beharko diagu, Zigor, nire jardun profesionalaren alderik murritzena baina ikusgarriena publiko egiteko egin duan hautua, baina ni ere talde horretakoa izana nauk. Igela izandakoa, eta luzaroan, gainera. Anoetako txartelak nire izena zian, baina gurasoen kontu korrontearen zenbakia. Berdin unibertsitate garaian Bilbon hartutako pisuak nahiz Leioako eta Gasteizko matrikulek, eta baita Europan zehar egindako hainbat oporraldik ere. Guk dirurik ez, eta eman haiek, baita babarrunak heltzean sartu ezin dituztenean ere. Onegiak dituk gurasoak, nahiz eta oso gutxitan aitortzen diegun.

Halere, seko harritu naik hire oraingo kalakak. Ez zakiat nik gaur egungo gurasoek egiten duten esan duan hori guztia —nik baino esperientzia handiagoa duk *aitatxogintzan*—, baina egitekotan ere, aldatu egin al da gurasoen profila? Aipatu dituk Maroko, Mallorca, Estokolmo eta Praga, baina hi ere ez haiz etxean geratu zalea izan. "Hire dirutik" egindako bidaiak izango hituan guzti-guztiak, baldinbaite.

Garaiak bezalaxe aldatu dituk pentsaerak ere, baina harrituko nindukek errazkeria hori guztia gizarteak berezko duela jakiteak. Alegia, egongo dituk kasuak, baina ez zaidak iruditzen dena eginda emateko joera hori errepikakorra denik. Hire belaunaldia duk orain kurtso amaierako bidaiak egiten ari diren horien guraso, eta pentsatzen diat inguruan ikusitakoak piztuko ziala hire hausnarraldiaren txinparta. Egosten ari diren igelez kexatzen ari zarete aurrez egositako igelak.

Nolanahi ere, norbere diruaren misterio hori argitzeke zagok, eta bai, existitzen duk fenomenoa. Adibide eder askoak jarri dituk, eta bidaien helmuga batzuk kontutan, ez ote duk oporren aitzakian norbere diru hori lortzeko joan-etorria izango, Bob Marleyren kamiseta soinean dutela? Adin horietan gauza asko egiten dituk ezkutuan...

ANDRES ALBERDI

# Tópia

*Tópia* hitza ez da ageri hiztegietan, baina oroitzapen onak ekartzen dizkigu behin adin batetik gorako getariarroi. Hitz horren oihartzunean sekulako umeteria biltzen ginen eliza inguruan bataioa zegoen bakoitzean, kristautxo berriaren aita jaunak eta ama andreak eta etxekoek botatzen zituzten txanponen eta goxokien harrapaketan atzaparrak galdu beharrean. Inguruko zenbait herritan *boloa* deitzen diote ekintza horri.

Nondik dator *tópia*? Itxura guztien arabera, *ponte* hitzetik. *Pontea* bataiarria da (*pila bautismal*). Hitz hori ageri da, besteak beste, hitz hauetan ere: *ponte-izena* (bataio-izena), *aita ponteko* (aita jauna)...

Getarian, aldaera hau gertatu bide da hitz horrekin: *ponte* > *tonpe* > *tope*. Jatorrizko ponte *tonpe* bilakatzen da metatesiz (letrak tokiz trukatuz, alegia, beste hauetan bezala: *ukitu/ikutu*, *euskara/eskuara*, *iruditu/iduritu*). Ondoren, *n* galtzen da. Eta, *-a* artikulua hartzean, *kale + -a* > [kalia] esaten dugun moduan, *tope + -a* [topia] esaten dugu.

---

Getarian eta inguruetan esaten diren hitzen txokoa da hau. Animatu eta bidali *artzape@topagunea.com* - era ezagutzen dituzun hitzak.

TELEFONO INTERESGARRIAK

| | |
|---|---|
| Udal bulegoa | 943 896 024 |
| Faxa | 943 140 190 |
| e-mail: | udala@getaria.org |
| Kiroldegia | 943 140 432 |
| Kirol-portua | 943 580 959 |
| Taxiak | |
| Javier | 607 720 242 |
| Carlos | 607 403 498 |
| Udaltzaingoa | 943 896 146 |
| Liburutegia | 943 896 147 |
| Anbulatorioa | 943 140 653 |
| Botika | 943 140 441 |
| Herri Eskola | 943 140 729 |
| SOSdeiak | 112 |
| Kofradia | 943 140 200 |

**ZAINTZA EGUNAK**

**Urriaren 22tik 26ra.**

**FULDAIN FARMAZIA**



SAIOA MARTINEZ DE
LAHIDALGA

# usADIO!

Dekadentzia eta umiliazioaren kronika jaso zuten zenbait egunkarik 2018ko irailaren 8an. Ez guztiek, noski, festa erabatekoa izan zela zioenik ere izan baitzen editorialen artean. "Amorru" hitza erabil zezaketen Jaizkibel konpainiakoek, baina haien ezpainek "tristea" ahoskatzen zuten behin eta berriz. Izan ere, tristea behar du izan zure herritarrek, zure bizilagunek, horrela tratatzea, horrela umiliatzea. Tradizioa.

Tradizionalki medikuen gehiengoa gizonezkoa izan da. Gaur egun, ordea, medikuntza fakultateetan alderantzizko proportzioa ikus dezakegu gizon-emakumeen artean. Gure ikasgelan, adibidez, ikasleen %20-25 soilik dira gizonezkoak. Ospitaleetara jauzi egiten badugu, berriz, mediku beterano edo eskarmentatuenak —nolabait esateko— gizonezkoak badira ere, geroz eta emakume mediku gehiago ikus daitezke. Goi karguetan, aitzitik, Y kromosomak agintzen du, oso emakume gutxi ikusten baitira departamentu buru gisa.

Medikuntza euskaraz ikastearen oztopo-lasterketa gogorrak eta sarri sentitu izan dugun gutxiespenak, duela urte batzuetatik mediku on eta euskaldunak garela lau haizetara aldarrikatzea ekarri du. Hori gutxi balitz, emakumeok, emakume izate hutsagatik, ospitaleetan hainbat egoera bidegabe bizi behar izan ditugu. Imajinatu, emakume mediku on eta euskaldunak garela aldarrikatu beharra zeinen astuna egiten zaigun.

Medikuntza ikasten hasi nintzenean, ez nuen uste hainbeste borrokatu beharko nuenik oinarrizko eskubideen alde, baina tristea den arren, etengabeko borroka eskatzen du prozesu honek guztiak. Sentitzen dugu, baina gu ez gara inoren *acompañantes*, guk ere, gure klasekide gizonek bezala, *compañeras* izateko eskubidea daukagu. Etorkizuna izango omen ginen, baina itxaron-zerrendan jarri gaituzte.

Ebatsi ziguten etorkizuna berregituratzen dihardugu egun, gai izango ez ginela esan ziguten horiei guztiei, birxurgatzen ez diren puntuekin ahoa itxiz. Nazkatuta gaude, zein espezialitate aukeratuko dugun galdetzen digutenean, gure amatasun ideiak aintzat hartuta erabakitzeko esaten diguten horiekin guztiekin, haurrak ditugunean —eduki nahi baditugu izango da, ala?— guardiak egitea ez baita erraza izango, antza. Nire klasekide Mikelen kasuan, ordea, ez ei du garrantzirik etorkizun batean aita izatearen nahiak espezialitatea aukeratzeko orduan. Esan gabe gelditzen dena esandakoa baino garrantzitsuagoa da.

Belauniko bizitzeari uko egin genion. Aspertu gara abanikoa hartu eta beti irribartsu jendea agurtzeaz. Txistua jo eta eskopetak eraman nahi ditugu, eta kontuz, ospitaleak ere hankaz gora jartzeko asmoa daukagu-eta.

UXOA IRIGOIEN

# Kontxita Oiartzabal

Iraileko arratsalde goxo batian elkartu nai Kontxitakin *El Getariano* kafeteyan. Bertan sartu orduko bere irrifarre politakin in dit ongietorriya. Launai gero arte esan ta fondoko mahaian jarri gea biyok.

87 urteko emakume getayarra. Bi ahizpa ta anai bat txu, bi seme ta bi alaba, bost biloba ta birbilobake batxu ta ez gutxi, gañea! 13 urte zitunetik 18 urtea Alamedan ontzi garbitzen ibilitakua da Kontxita. Geo Burdeosen urte bat pasa ta Zauzko Pionian urte dexente in tzitun Anjelekin ezkondu arte. Urte luzetan arrai saltzen jardun tzun. Begitan disdira igerriyot bere gazte garairako biaje honei hasiera eman diounian, aurtengo udatik garai hartakoa...

***Udan ba al tzenuen plaira juteko ohiturik? Gaztetapea o Malkorbea jute ziñaten?***

Gustatu asko, baino lanakin ezin... Jutezkotan Malkorben izate ginan.

***Kanpoko jendeik etortze al tzan garai haietan? Nundik? Harremanik izate al tzenuen beayekin?***

Bai *veraneantia*k etortze zian, uztailan frantses asko ta baita naparrake. Familiyak San Ferminak ta geo etortze zian. Harreman haundiya eukitze genun, arraya erostea ta etortze zian ta euskeraz ta frantsesez hitz eite genun.

***Abuztua ayatu ta Salbadoriak. Batoz arrantzaliak etxea...***

Aiii! Zai-zai eote ginan mutilak itsasotik noiz etorriko, enamorauta giñauen ta! (biyok parrez lehertzen). Oaingo mutilak baino guapuouak zian garai hartakuak: milrayas galtzak, alkandora txuriya, ileko raya albuan inda... Guapuak... (algaraka).

***Parrandaik ite al tzenuen neskak? Erromeyik izate al tzan?***

Lanian giñauen ta festa gutxi izate genun. Orduan dana pekatua zan, mutilak gauez parranda bai, baino neskak batez! Erromeyak earrak izate zian, dantza ta algara! San Pelayota ta Euskal Jaitare jute giñan. Oain baino giro sanuoua zan, gustoa ibiltze ginan!

***Zautzan e ibiltze zinaten orduan?***

Bai, bai. Oinez jun, zinia ikusi ta hura bukatzian dantza itea! Hiru pieza in ta autobusa galtze genun ta geo saltaka etxea, berandu bestela! (biyok berrize parrez!).

***Oain, uda bukaeran, eguna mozten, lanea buelta ta "síndrome post vacacional" asko aitzea...***

Guk ez genun ezautu hori, oporrak batez, beti lanian! Eguna moztiak emateit pena, seitako ta iluntzeunian...

Eguna motxuoua izatiana izan da gure berriketako pena bakarra, Kontxitan begitako bizipozak alaitu du-ta gainontzeko guztiya! Emakume bikain honei eskerrak emanez, besotik heldu ta hitz ta pitz segi deu, hor kontautakuak, ordia, ezin dia hemen idatzi.

Segi holaxe, Kontxita!

# Euskaraldian izena emateko aukera zabalik dago

Euskal Herriko erakunde eta herri ezberdinetako taldeak elkarlanean prestatzen ari diren Euskaraldia fase berrian sartu da. Herritarren izen-emate garaia da; hainbat lekutan egin daiteke, batetik, **www.euskaraldia.eus** webgunean, eta bestetik, Getarian, liburutegian zein turismo bulegoan.

Parte-hartzaileek azaroaren 23tik abenduaren 3ra arteko ekimenean zein rol hartu nahi duten erabaki beharko dute. Bi aukera dituzte: Ahobizi edo Belarriprest izan. Ahobiziek euskaraz hitz egingo diete hizkuntza ulertzen dutenei, eta ezezagunei ere hala egingo diete lehen hitza. Belarriprestek, bestalde, euskaraz egiteko eskatuko diete euskal hiztunei. Biek ala biek beraian papera ezagutarazteko itsasgailua eramango dute soinean.

Herritarren hizkuntza ohiturak aldatzea du helburu Euskaraldiak.

Getariako Hamaikakoaren aurkezpena ekainean.

# Emaitza onak getariarrek arraunean

Irailean amaitu zen aurtengo arraun denboraldia, Esperantzak bere egitekoak lehenxeago bukatu bazituen ere. Horrela, herriko taldetik kanpo aritu diren arraunlariek emaitza ezin hobeak izan dituzte, Izaro Lestayo eta Ander Etxegoienek, esaterako.

Lestayok XI. Emakumezkoen Kontxako Bandera irabazi zuen San Juan taldearekin. Taldeko patroietako bat izan da denboraldian zehar, azken jardunaldian ureratzerik izan ez bazuen ere. *Batelerak* Donostiako probako lehen zein bigarren estropadak irabazi zituen.

Bestalde, Ander Etxegoien herritarrak lehen urtea egin du San Pedro taldean. Hau ere patroi lanetan aritu da, eta hain zuzen ere, Eusko Label Ligako patroi onenaren saria jaso zuen azken estropadan. Matematikoki bi aste lehenago ezagutu zen irabazlea; Etxegoienek 16 punturekin amaitu du denboraldia.

Izaro Lestayo (goian) eta Ander Etxegoien (behean).

**Albiste gehiago www.artzape.eus webgunean...**

# Itsasotik herrira jaialdia ospatuko da urrian eskualdean

Urriaren 12an eta 13an Itsasotik herrira jaialdiak hartuko ditu Urola Kostako herriak; hain zuzen ere, Getaria, Aia, Orio, Zarautz eta Zumaia. Ekitaldi honetarako Kosta Gastronomika jardunaldiak eta Sorkide, Urola Kostako Kultura eta Sormen Industrien ekimena, batu dira. Itsasoa ardatz hartuta, hari lotutako sormen eta kultura nahiz gastronomia eskaintza egingo dute.

Jaialdiarekin, batetik, balioan jarriko dira eskualdeko sortzaileen jarduerak, "erabat berritzailetzat" jo duten arte, dantza, musika, antzerki eta artisautza eskaintzarekin. "Elkarlanean sustatutako hainbat ekimenen bitartez, eta itsas-ondarea ardatz hartuta, urteetan garatutako ondare aberats eta anitza erakutsaraziko da", diote Urola Kostako Udal Elkarteko ordezkariek.

Bestetik, "aurreko urteetako arrakastari jarraipena emanez", Kosta Grastronomikako esperientzia gastronomikoak bizitzeko aukera izango da. Herriz-herri bertako esperientzia edo produktu banarekin lotutako jardunaldiak eskainiko dira.

Ekitaldiaren aurkezpena urriaren 3an egingo bada ere, aurreratu daiteke hlaren 13an egingo direla Itsasotik herrirako ekintzak Getarian. Horrela, arteaz gozatzeko parada izango da itsas-pasealekuan jarriko dituzten artelanekin. Gainera, itsas-ondareari buruzko erakusketa izango da eta ontzigintzaren lehena, oraina eta geroa jasoko dituen zenbait ekimen ere izango dira.

Hori guztia, herriaren ordezkarietako bat den txakolinaren esperientziarekin lagunduta.

Urola Kostako Udal Elkartearekin batera, ekintzak ospatuko diren bost herrietako udalak ari dira jaialdi honen antolaketan lanetan.

# Kiroldegiko aldagelak berritu dituzte

Iraila amaieran eman dio hasiera ikasturte berriari Sahatsaga kiroldegiak. Aurten, gainera, berrikuntzak izan dira instalazioetan, izan ere, duela hilabete batzuk Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako akordio bati esker, aldagelak handitu dituzte. Ia azaleraren bikoitza dute orain, 63 metro koadrotik 122ra pasa baitira

Hori egin ahal izateko barrualdeko komunak kanpora pasa dituzte eta hiru sarrera prestatu: frontoitik, kiroldegi barnetik eta kanpoaldetik. Hitzarmenean zehaztutakoaren arabera, frontoiaren eta kiroldegiko harreraren arteko pasilloa kenduko dute. Oraindik ere horretarako lanean jarraitzen dute.

Obrek 246.669,90 euroko aurrekontua zuten eta horietatik 131.975,89 euro ordainduko zituen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Gainerakoa Udalak jarriko zuela adostu zuten.



Kiroldegiko aldageletako bat, eraberrituta.

...eta **Facebook**en.




# ANE CAMPOS ANDUEZA

## "NIK ORAIN BIGARREN TALDEARI BEGIRATU BEHAR DIOT"

*Zumaiakon hasia futbolean, Oiartzunen jokatu du azken bi urteetan. Aurten Realak emakumeen harrobiko taldea osatu du eta han ari da Ane Campos, aurrelari. Denboraldi-aurrea, ordea, lehen taldearekin egin du, maila ona erakutsi eta zenbait gol sartuz. Horietako batek eman du zeresana, lehen emakumea izan baita Logroñoko Las Gaunas zelaian gola sartzen. Halakoak atzean utzita, denboraldi berrian du burua.*

TESTUA
*IURE EIZAGIRRE*

***Denboraldi honetan Realarekin ariko zara. Noiz eta nola sortu zen horretarako aukera?***
Realak teknifikazio saioak egin ditu urtean zehar harrobiko talde hau osatu arte. Klub ezberdinetako jokalariak hartu ditu teknifikaziorako eta aukera batzuk izan ditut joateko. Lehenengo aldiz Zumaian nengoela deitu zidaten eta gero, pixkanaka. Oiartzunera joan nintzenean ere deitu zidaten.

***Teknifikazioa zenbatekoa izaten da, hau da, zenbat denbora pasatzen da taldean?***
Ezberdinak izaten dira. Hainbat entrenamendutarako deitzen dizute, gero partida jokatu eta atseden bat izaten da. Hurrengoan, berriro, beste hainbat entrenamendu eta partidak, lagunartekoak.

***Denboraldi-aurrea amaitu berri duzue —liga hastear zela egin genion elkarrizketa—, nolako esperientzia izan da?***
Realeko lehen taldearekin egin dut denboraldi-aurrea eta oso gogorra izan da. Oiartzungo taldetik Realeko lehen mailakora joatea jauzi handia izan da niretzat; baina, pixkanaka, joan naiz intentsitatea hartzen eta oso gustora nago.

***Gogorra, fisikoki?***
Dena. Ia denok berriak ginen, eta inoiz ez nuen lehen mailako talde batekin denboraldi-aurrea egin. Egia esan, oso ondo hartu naute bertako jokalariek, konfiantza eman didate eta eskua luzatu dit beraietako bakoitzak.

***Gogorra izan dela diozu, baina badago denboraldi-aurreko gol bat, Las Gaunasen sartutakoa, zeresana eman duena. Nola bizi izan zenuen?***
Denboraldi-aurrean lesio batzuk eduki ditut eta partida guztietan ez dut minutu asko izan jokatzeko. Hartan titularra izan nintzen. Lehen taldearekin titularra izatea edonorentzat da oso pozgarria. Gola sartu nuenean niretzako zoragarria izan zen, asko emozionatu nintzen. Ez nuen espero baina sartu zen, eta ea ez den hor geratzen.

Ane Campos.

## "Taldea gaztea da baina oso ilusionatuta gaude denok, disfrutatzeko gogoz"

Ane Campos Realarekin denboraldi aurrean jokatutako partidetako batean.

***Sare sozialetan izan da hori ikusteko aukerarik, norbaitek zerbait esan dizu edo horri buruz irakurri duzu?***
Bai, jende askok. Twitterren ere bai, askok ez, baina iruzkinak ikusi nituen, eta pozik.

***Orain arte lehen taldearekin ibili bazara ere, harrobikoarekin ekin diozu denboraldiari. Nola prestatu zarete Ligarako?***
Ezcarayra joan gara, astebete, taldeak bat egiteko. Lagunartekoak eta torneoak jokatu ditugu eta oso pozik nago daukagun taldearekin. Gaztea da baina oso ilusionatuta gaude denok, disfrutatzeko gogoz eta, batez ere, ikasteko eta lan asko egiteko gogoarekin.

***Zein adin tarteko jendea zarete?***
21 urte dauzka zaharrenak eta 15-16 gazteenak.

***Nola lortzen da adin tarte horretako talde bat batzea?***
Pixkanaka, esan dudan bezala, taldea osatu, elkarri konfiantza eman, eta...

***Akaso, batzuk teknifikazio saioetatik ezagutuko zineten.***
Batzuk tokatu gara

teknifikazioetan. Hara memento batean batzuk joaten dira, beste deialdi batean beste batzuk... Denok ez, baina batzuk ezagutzen ginen.

***Realaren aurretik Oiartzunen ibilia zara. Zenbat urtez?***
Bi denboralditan.

***Aurretik Zumaiakon, zure ibilbidea han hasi zen. Orain Realaren diziplinan sartu zara. Zeintzuk dira baten eta besteen arteko aldeak?***
Nik uste Reala, Gipuzkoako erreferentziazko talde bat izanda, instalazio, zelai eta prestakuntza aldetik hobea dela. Oiartzunek ere baditu horrelako gauzak, onak dira, baina nik uste Realekoenak hobeak direla.

***Prestakuntzari dagokionez, ikusten duzue, entrenatzaile aldetik, izen gehiagoko jendea edo esperientzia handiagoduna dagoela?***
Bai, nik uste dut gaur egun Realean dauden entrenatzaileak konfiantzazkoak direla, asko erakusten digutela.

***Zuen bigarren entrenatzailea da Aintzane Encinas, Realeko lehen taldean ibilia eta ezaguna emakumeen futbolean. Zertan lagun zaitzakete horrek?***
Bai, urte askotan Realean ibili da eta gainera, kapitaina izan da; Gipuzkoako erreferentzietako bat da guretzat. Asko laguntzen digu, edozein zalantzarekin berarengan joan eta azaltzen digu; konfiantza asko ematen digu.

***Bigarren taldean jokatuta eta denboraldi-aurrea goiko mailan eginda, espero al duzu denboraldia haiekin amaitzea?***
Aukerak beti egoten dira, ez? Nik orain bigarren taldeari begiratu behar diot, hori da nire asmoa, horretara etorri nintzen, bigarren taldean jokatzera. Aukerak baldin badaude lehen mailara igo eta jokatzeko, taldeari laguntzeko dena eman eta entrenatzaileak nigan konfiantza badu... Etorriko da etorri behar duena.

***Futbolariaz gain, ikaslea zara. Zer ari zara ikasten?***
Aho eta hortzen higienea, Donostian.

***Nola lotzen dituzu ikasketak eta kirola?***
Ni, bigarren taldean egonda, ondo moldatzen naiz, goizez izaten dut eskola eta arratsaldez entrenamenduetara joaten naiz. Orduan, ez dut izaten arazorik normalean.

***Nola joaten zara entrenatzera?***
Taxian jasotzen gaituzte.

***Taldetan ikasketen jarraipena egiten dute?***
Bai. Realean kontrola eramaten dute. Ez digute esan taldean egoteko ondo ibili behar garenik baina bai kontrolatuko dutela lehen ebaluaketan zer nota atera ditugun.

***Esaten da kirolariok maila jakin batzuetan ibilita aparteko zainketa egin behar duzuela. Hala al da?***
Pertsonak berak jakin behar du zelaian errendimendua emateko ondo zainduta egon behar duela. Gainera, hilero kontrolatu egiten gaituzte. Azkenean, bi kilo irabazi edo galtzea igarri egiten da partida edo entrenamenduetan.

***Bestelako jarduerak nahiz kirolak, adibidez, surfa, eskia..., egin ditzakezue?***
Ez, arrisku-kirolak ezin dira egin. Taldetan hala zehazten dute.

*"Nesken lehen mailan Iberdrola babesletzat sartu zenetik gauzak asko aldatu dira: diru-sarrera gehiago jasotzen dute, telebista ere, pixkanaka, ari da sartzen mundu honetan..."*

Ane Campos, goiko ilaran, ezkerretik hasita, lehena. /Arg.: Zumaiako Futbol Taldea.

***Realak sortu berri duen harrobiko talde hau aurrerapauso bat gehiago da kirolean. Nola ikusten duzu gaur egun emakumeen futbola?***
Nik uste dut nesken lehen mailan Iberdrola babesletzat sartu zenetik gauzak asko aldatu direla: diru-sarrera gehiago jasotzen dute, telebista ere, pixkanaka, ari da sartzen mundu honetan... Lehen zegoen futboletik oraingora asko aldatu da, baina oraindik gauza gehiago daude egiteko. Apurka gauzak aldatzea espero dut.

***Zer gauza, adibidez?***
Diru kontua edo... ez dakit.

***Aldaketak eman direla aipatu duzu, futbol zelaietan nabaritzen da hori? Jende gehiago joaten da partidak ikustera orain?***
Beno, mutilekin konparatuta, ez, ez hainbeste; baina jendea joaten da animatzera. Gurasoek asko babesten gaituzte, eta bertako jendea ere antzematen da.

***Gurasoak aipatuta, etxean babesa izan duzu kirolean aritzeko?***
Bai, beti gustatu izan zait kirol mundua. Etxean babestu naute ze beraiei ere gustatzen zaie.

Jolasorduetan beti joaten nintzen mutilekin futbolean jolastera eta gero hondartzako futbolera joan nintzen. Kirola aurrena, gero ikasketak; beti horrela izaten zen.

***Txikitan, genero kirol estereotipoak bizi izan al zenituen?***
Bai, ze ni izaten nintzen, lagunen artean, mutilekin jolastera joaten zen neska bakarretakoa. Betiko kontuak izaten ziren, baina, denborarekin ikusten da esandakoak ez direla hala. Kasurik ez, eta aurrera.

***Zer esango zenioke gaur egun oraindik ere egoera horretan dagoen norbaiti?***
Kasurik ez egiteko, disfrutatzeko, asko ikasteko, baina, batez ere, gustatzen zaiona, egiten duena, ondo egiteko.

***Garai hartan ba al zenuen, futbolean, erreferentziazko emakumerik?***
Joe (barreak)... Bai, asko begiratzen nion Nahikari Garciari. Gainera, gaur egun esaten didate bere antza daukadala; nik ez dut ikusten non daukadan antza baina...

***Agian zeu izan zaitezke egunen batean erreferentzia beste norbaitentzat.***
Ez dakit, baina asko poztuko nintzateke.

***Amaitzeko, ba al duzu betetzea gustatuko litzaizukeen ametsik?***
Lehen mailan debutatzea.

***Hurbil ikusten duzu?***
Hurbil ez dakit baina badakit lana egin behar dela hori lortzeko, beraz, borrokatu egin behar da.

## *Aitona, Anselmo Campos, lehen getariarra Realean*



Ane da Realean ariko den lehen emakume getariarra. Etxean, ordea, ez zaie arrotza aitzindari izate hori, izan ere, aitona futbolaria zuen. Hain zuzen ere, talde txuri-urdinean jokatu zuen lehen herritarra izan zen Anselmo Campos Garrastazu.

Hainbat urtez jokatu zuen Camposek Realean, 1945etik 1948ra, zehazki. 1945/46an bigarren mailan zegoen taldea, hurrengo denboraldian lehen mailara igotzea lortu zuten, baina urte bakarra eutsi zion mailari.

Anselmo Campos, beheko ilaran, ezkerretik hasita, bigarrena.

*Duela hilabete itxi zen taberna baina atzera beharrean, aurrera begira da jada herriko ezker abertzalea. Oraindik ez dakite zer izango den geroan, beharrak ezagutzeko lanketa egiteke baitute; aurreikusten dutenez, udazkenean izango da hori.*

**Testua**
IURE EIZAGIRRE

## Harralderen itxiera

# ATEA ITXITA, LEIHOA IREKITZEKO LANEAN

*Bi hamarkadatik gora egin ditu zabalik Harralde tabernak. Duela urte batzuk bertako kideek ziotenez, ez zen "taberna soil bat, kultur elkarte bat baizik". Harenak ere amaituko dira, baina herriko ezker abertzalea dagoeneko aurrera begira ari da, etor eta sor dezaketenari adi.*

Irailaren etorrerarekin batera itxi zituen ateak Harralde herriko tabernak. Zenbait getariarrek egun batetik besterako itxiera modura bizi izan bazuen ere, ez zen bat-batean hartutako erabakia, hori eragin zuen arrazoia bakarra ez zen bezala. Gora-beherak lokalarekin, kontsumo ohituren aldaketarekin hainbeste bezero ez hurbiltzea, arduradunaren uzteko erabakia... Horrek guztiak amaitutzat eman du 22 urtetako ibilbidea.

Itxieran irakurritako testuan hala zioten: "Gizartean aldaketa nabaria izan da. Militantzia mota aldatu da, parte-hartzea, biltzarrak, ardurak, harremanak aldatu dira. Txikiteoa bera aldatu da: nork edaten ditu ardo arruntak, kalimotxoak, pattarrak, puruak? Non dira lagunarteko mus partidak, partxisa, hamaiketakoak? Dena berritu da, sozialki, fisikoki eta pertsonalki".

Horrela, orain arte ezagututako ohiturak galduko direla uste badute ere, herriko ezker abertzalean sinesten dute kide, metodo eta eztabaidagune berriak dituztela irabazteko. Berrikuntza horretan egin asmo dute hurrengo pausoa. Izan ere, aurrerantzean egin daitekeena pentsatzen ari dira jada, nahiz eta oraindik ez dakiten, zehatz, zer izango den, zein eraketa eta forma izango duen.

Jendearekin hitz egiteko beharra sumatu dute, ezker abertzaleko "adineko, gazte, ez gazte, tartekoek..." lanketa bat egitekoa, denen artean zer egin erabakitzeko. Asmoa udazkenean hastea da, eta argi diote: "Herriko tabernaren ateak itxi dira, Harralde desegin da. Baina hainbeste urtetan egindako bidea ez da alferrikakoa izan".

Bi hamarkadatik gorako bide horretan herritar zein kanpotar ugari batu dira Harralden. Duela hiru urte ARTZAPEk elkarteko hainbat kideri egindako elkarrizketan azaldu zuten hasierako nahia: "Elkartea sortzea zen berezko helburua. Taberna kalera, herritarrengana, irteteko bidea zen, eta guztion erreferentziazko puntu bat izatea, topagune bat". Azpiegitura aurrera ateratzeko hiru hilabetez jardun zuten elkarlanean. Hala, taberna zein elkartea bilakatu zituzten elkargune; batean egindako hitzaldi, musika-emanaldi eta bertso-saioak nahiz besteko bilera, batzar, afari eta umeen meriendak.

### *Elkartearen desegitea*

Gaur-gaurkoz Harralde Elkarte Kulturala, 1991n erregistratua, desegitea da asmoa. Abokatuekin harremanetan daude, haiek emandako aholku eta pausoak jarraituz, helburua lortzeko. Ez dakite oraindik ahalko duten, izan ere, herriko tabernen auzian sartuta dago elkartea.

Espainiako Auzitegi Nazionalak 2002/35 sumarioaren epaia 2014ko uztailaren 30ean eman

zuen. Bertan, 103 herriko taberna konfiskatzeko agindu zuen, "ETAren egitura" finantzatzeagatik; tartean zegoen Harralde kultur elkartea. Helegiteak aurkeztu ziren orduan, baina urtebete beranduago, 2015ean, Auzitegi Gorenak, taberna gutxi batzuk auzitik atera eta ebazpena berretsi zuen gainerakoentzat.

Beste herri batzuetan, Zarautzen kasu, herriko taberna ezker abertzalearena izaki, lokalak ere badaude auziperatuta. Getarian, aldiz, elkartea epaitu zen, eta ebazpena eman ondoren, inbentarioa egin eta taberna irekita zegoela berrestera pasa ziren. Harrez geroztik, tarteka egin izan dituzte antzeko ikuskapenak. Beraz, hortik etor daitezke desegiteko trabak; halere, abokatuek hurrengo pausoak argitu zain jarraitzen dute.

Dena den, garbi dute, hala ere, beste hainbatetan Harralde suspertzeko ahalegina egin duten moduan, oraingoan, azken urteetako herriko taberna ez, baina bestelakorik sortzeko indarra egingo dutela.

**Urteotan ekintza ugari egin dira Harralden, besteak beste, argazkiotan ageri diren bertso-saioak, mus txapelketak eta musika emanaldiak.**

**Jende asko elkartu zen Harralderen agurrean. Bertan irakurri zuten testuan adierazi zutenez, bide berriak jorratu behar dituzte, "espazio berriak ireki".**

Ilea **moztu** edo **txukuntzea** nahi? Zure **etxera** joango naiz

# Espe

**Tlf. 656 786 650**

azkuelek

**Araba kalea, 41 ZARAUTZ**
(Maxi Eroski ondoan)
**943-13 04 33 - 619 523 539**
**azkuelek.com**

ETXEKO BERRIKUNTZAK · TELEKOMUNIKAZIOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK · ARGIZTAPENA · DEKORAZIOA · KONPONKETAK · ANTENAK

# TXUKUN LORAZANTZA, S.L.

Lorezaintza, mendiko lanak, indusketak, itxiturak...

660 332 756 - 679 428851
txukunlorazantza@hotmail.com

POLITENA

GURE BEREZITASUNAK:

- Astegunetan:
  Eguneko menua
- Jaiegun eta asteburuetan:
  Luxuzko pintxoak, bokatak eta razioak.
- Eramateko eskariak.
- Wi-Fi zerbitzua.

GETARIA

Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

aranola
PVC eta Aluminiozko lanak

Tel.: 649 95 15 03 / 649 97 30 41
Fax.: 943 14 02 86

Taberna
Mayflower
Erretegia

katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

TXOKO
Getaria

txokogetaria.com

Tlf: 943 140 539

elan euskadi
ONGD - GGKE

# Getariaz, bizipenez, atzerrian jaioekin

Eustaten azken datuen arabera, 2.800 pertsona inguru bizi gara Getarian eta horietako 285 atzerrian jaiotakoak dira; populazioaren %10 inguru. Azken datu horri erroldatu gabe bizi direnen kopurua gehitu behar zaio.

Gai konplexua izanik, hurbilpen ariketa bat egin nahi izan dugu; horretarako atzerrian jaio eta Getarian bizi diren herritarrak zein egoeratan bizi diren, zein zailtasun eta ilusio dituzten, nola ikusten gaituzten eta abarrez hitz egiteko elkartu gara kafe baten inguruan. Maroko, Senegal eta Nikaraguako hiru pertsona gonbidatu ditugu, bi gizonezko eta emakumezko bat. Hiru horietatik bakarra sartu zen modu "legalean" Estatu espainiarrean, hau da, paperekin eta bizitzeko nahiz lana aurkitzeko eskubide guztiekin. Beste lagun bat *pateran* iritsi zen eta hirugarrena turista gisa lehenik eta bertan egoteko hiru hilabeteak igaro ondoren, "ilegal" gisa gelditu zen. Azken biek hiru urte behar izan dituzte dagozkien eskubide guztiak eskuratzeko.

Hauek dira labur elkarrizketatik ateratako ideia nagusiak:

- "Paperik gabekoen" bizitza erabat baldintzatuta dago; segurtasun faltaz eta beldurrez gogoratzen dituzte lehenbiziko urteak hemen. Deigarri ez gertatzen eta gehiegi ez ateratzen ahalegintzen dira. Horrek oso zaila egiten die gainerako herritarrekin harremanak eraikitzea.

- Guztiak datoz euren eta senideen bizitza hobetzeko esperantzaz. Denek diote beraien herrialdeetako egoera beste bat balitz, etxean gelditukо liratekeela. Gehienek bidaltzen dute irabazten duten diruaren zati handi bat jatorrizko etxeetara.

- Oro har, gustura daude herrian. Errespetuz eta duintasunez tratatuak sentitzen dira, eta gertaera zehatzak aipatu badituzte ere, ondo baloratzen dute jasotzen duten tratua.

- Lanean nabaritu dituzte desberdintasunik handienak: bertakoek nahi ez dituzten lanak egiten dituzte eta, askotan, lanik desatseginenak agintzen dizkiete. Arduradun edo nagusiak zakarragoak omen dira haiekin eta soldatak ere, sarritan, baxuagoak direla diote.

- Emakumeek jasaten dituzte egoerarik zailenak, batez ere, zaintza-lanetan aritzen direnak. Hainbat babesgabetasun- eta jazarpen-egoera aipatu dituzte.

- Seme-alabek bidea errazten diete integraziorako —eskola, eskolaz kanpoko jarduerak, plaza...—, bide naturala irekitzen diete harremanetarako.

- Zenbaitetan "lupapean" ikusi dute euren burua. Aipatu dute bazterkeria edo zailtasun egoeretatik ateratzen hasi direnean, batzuetan "ikusi nola bizi diren" eta antzekoak entzun izan dituztela, gainerako herritarren mmoduan euren diruarekin nahi dutena egiteko eskubiderik izango ez balute bezala.

- Egoera eta pertsona zehatzekin izan ezik, bertakoen eta atzerrian jaiotakoen harremanak oso txikiak direla diote; zaila egiten zaie bertakoekin harremantzea, baita euren izaera, ohitura, beldur eta aurreiritziengatik ere. Gehienetan, beraien harreman-sarea mugatua eta txikia izaten da.

Ariketa hau hurbilpen bat izan da, elkartzen jarraitzeko eta jende gehiago batzekotan gelditu gara. Jende berria ezagutzeko eta harreman berriak eraikitzeko desiatzen daude. Elkarrizketa osoaren transkripzioa Elan-Euskadiren Facebookeko profilen argitaratu dugu irailean.

**Udaletxeko artxiboetatik**
EREITEN Kultur Zerbitzuak

# Ongintza Getarian

Orain dela zenbait hilabete aseguru sozialen gaiaren inguruko zenbait zehaztapen eman genituen atal honetan. Bertan aipatu moduan, XIX. mende amaieratik gai sozialei buruzko legeak ugaritzen joan arren, benetako aurrerapausoak ez ziren XX. mendean sartu arte emango. Baina aseguru sozial hauen ezarpena orokortu baino lehen, zein zen gizarteak babes soziala eskaintzeko zeukan bidea? Nola laguntzen zitzaien sozialki marjinatutako pertsonei?

Sozialki baztertutako taldeei eskainitako babes forma ezberdinak eman izan dira historian zehar. Orokorrean, bost direla esan daiteke:

- Karitatea.
- Ongintza.
- Aseguru soziala.
- Gizarte laguntza publikoa.
- Ongizate soziala.

Lerro hauen bidez, aseguru sozialen aurreko formaren inguruko zenbait datu emateko asmotan gatoz. Ongintza modura ezagutzen duguna Aro Berrian zehar hasi zen gorpuzten. Baztertutakoei bideratutako babes forma hau, karitatearekin alderatuta, ez da elizaren edota partikularren aldetiko baliabide ekonomikoen bidez hornituko. Oraingo honetan, udalak izango dira protagonista nagusiak, *Junta de Beneficencia* izenekoen bidez.

Ongintzak, ekintza modura ulertuta, bi alde edo helburu zituela esan daiteke: batetik, txiro eta eskaleen kopurua txikitzea, eta bestetik, laguntza sozial publikoaren bidez baztertutako jendearen beharrak asetzea, laguntza pribatuak murriztuz. Espainia mailan, ongintza nahiko berandu barneratu zen, gainerako europar herrialdeekin alderatuta betiere, ez baitzen plazaratu 1849. urtera arte *Ley General de Beneficencia* delakoa. Handik aurrera, herri bakoitzeko *Junta de Beneficencia* delakoa bere herriko bizilagun baztertuek beste edozein herritan sortutako gastuak ordaintzera behartuta zegoen.

Getariaren kasuan, eta normalean informazio iturri nagusi ditugun udal akten arabera, 1851ko urriaren 5eko aktan agertzen da lehen arazoa aipaturiko gastuen ordainketarekin. Dirudienez, Donostiako juntak ongintzara bideratutako eraikinetan getariar bat edo beste zegoen, eta legean oinarrituta, Getariako Udala behartuta zegoen ordaintzera haien kostuak. Donostiatik Getariara iritsitako komunikazio horrekin ez zeuden ados herriko agintariak, euren arabera ez zuten inongo gasturik ordaindu behar ez baitzen existitzen Donostian bertakoa zen txirorik: "*Considerando que no hay ningún pobre de esta jurisdicción en el establecimiento de San Sebastián*".

Hau ikusita, galdera bat etor dakiguke burura: benetan ez zegoen txiro edo eskale getariarrik Donostian edo Getariako Udalak ez zuen haien kargu egin nahi?

udalsarea21

# Akatsak hondakinak birziklatzean

Nahiz eta asko hobetu den, ezjakintasunagatik edo utzikeriagatik, hiri-hondakinak edukiontzi ezberdinetan uzteko momentuan akatsak egiten ditugu.

**Etxerako janariarekin zikindutako kartoiak edukiontzi urdinean.** Etxerako janarien kartoiak, hala nola pizza, txinatar-janaria, hanburgesak, e.a., ezin dira edukiontzi urdinetan utzi, olioarekin zikinduta baldin badaude, koipeak zelulosa bustitzen duelako eta birzikla ezina bihurtzen duelako. Babesteko plastikozko estalgarri bat badu, ezin da edukiontzi urdinera bota; errefusaren edukiontzira doaz.

**Erabilitako eskuoihalak edukiontzi urdinean.** Berdin gertatzen da erabilitako eskuoihalekin: zikina ezin da erraz atera. Horregatik hobe da errefusaren edukiontzian utzi, edo bestela marroian, gai kutsatzaileekin zikinduta ez baldin badaude.

**Botilak eta papera plastikozko poltsen barruan.** Botilak eta papera plastikozko poltsetatik atera beharko dira, langileen betebeharra arintzeko eta multzoa ez zikintzeko. Ondoren poltsa ontzi arinen edukiontzian utziko da.

**Aluminiozko papera errefuseko edukiontzian.** Aluminiozko papera erabat aluminioa da, eta beraz, behar den guztietan birzikla daiteke. Horregatik ontzi arinen edukiontzian utzi behar da.

**Kafe-ontziak ontzi arinen edukiontzian.** Nahiz eta aluminiozko edukiontzitxoa izan, ez da ontzi bezela kontsideratzen, ezin delako bere edukia, kafea, kendu. Egokiena izango litzateke saltzaile berak erabilitako ontziak jasotzea, fabrikatzaile berak berrerabiltzeko.

**Edarien latak errefusaren edukiontzian.** Edarien latak, aluminiozkoak, ontzi moduan hartzen dira, ondorioz, ontzi arinen edukiontzietan utzi behar dira.

**Puskatutako edalontziak edukiontzi berdean.** Sarritan agertzen den gaia puskatutako edo zahartutako edalontzi eta kopena da. Ez dira beirazkoak, kristalezkoak baizik. Errefusaren edukiontzira joan behar dute, ezin baitira beirarekin batera urtu.

**Biberoiak ontzi arinen edukiontzian.** Bere ezaugarriengatik ez da ontzi bezala hartzen, beraz, errefusaren edukiontzian utzi behar dira.

**Hortzetako eskuilak ontzi arinen edukiontzian.** Nahiz eta plastikozkoak izan, ez dira ontziak, eta birziklatzea asko zailtzen du. Errefusaren edukiontzira doaz.

**Eskuoihal bustiak edukiontzi urdinean.** Eskuoihal bustiak, nahiz eta zelulosa-papera izan, errefusaren edukiontzira bota behar dira, birziklapena kutsatzen dute, petroliotik eratorritako zuntza izaten dutelako.

**Kortxoak errefusaren edukiontzian.** Kortxoa materia organikoa da, eta beraz, edukiontzi marroira doa. Plastikozko ardoen tapoiak izanez gero, ontzi arinen edukiontzira bota beharko lirateke.

**Txapak errefusaren edukiontzian.** Txapak berrerabili ditzake ontziratze-industriak, eta horregatik ontzi arinen edukiontzira joan behar dute.

**Informazioa gehiago:**

Tel. 943 896024 // maizpuru@getaria.org

GARBIÑE IBARBIA

# Komunaren eboluzioaz berriketan

Orain dela denbora gutxi lagun batek argazki bat bidali zidan. Errenazimentuko jauregi batean errehabilitazio lanetan zebilen eta XIV-XV. mendeko komuna bilatu zuen. "A zer kasualitatea!", esan nion; "ni berriz, etxebizitza bateko komunean komun elektronikoa jartzen ari naiz, komuneko paperaren ordez, ura eta airea erabiltzen ditu garbiketarako!".

Hori dela eta, berriketan jardun genuen historian zehar komunak eta bainugelak izan duen eboluzioaz: nola Antzinako Erroman eta Grezia Klasikoan bainuak publikoak ziren, eta gorputzaren zainketak zuen garrantzia. Beraientzat bainatzea ekintza publiko zein soziala zen eta hiru bainu modalitate zituzten: *Frigidarium* —bainu hotza—, *Tepidarium* —bainu epela— eta *Caldarium* —bainu beroa edo lurrunezkoa—.

Erdi Aroan berriz, gerra eta inbasioak zirela-eta bainu publikoak eta bainatzeko ohiturak desagertu egin ziren, jauregi edo monastegi batzuetan salbu. Pixontzia kalean husten zuten "badoa ura!" garrasi egin ondoren.

XIX. mende bukaera arte, bainugelak ez zeukan toki finkorik etxebizitzetan. Infekzioak eta gaixotasunak ugariak ziren Paster eta Listerrek (1860-1870) gaixotasuna transmititzen dutenak germenak direla sustatu arte. Horrela, hasiberria zen industrializazioari esker, etxebizitzetan bainu eta garbitasunerako gela bat erreserbatzen hasi ziren.

XX. mendearen erdi aldera arte etxebizitzek ez zuten bakoitzak bere komuna izan, baina pixkanaka bainugela finkatu egin zen. 1960ko hamarkadan hasi ziren bainugelako diseinua lantzen: koloretako portzelana (berdea, arrosa, e.a.), aginte bakarreko iturriak, termostatikoak... XX. mendeko azken hamarkadan, material, diseinu eta osagarriez gain, erosotasuna eta ongizatea hartu ziren kontuan, eta bainua plazera bihurtu zen.

XXI. mendean plazeraz gain, ingurumenarekiko erantzukizuna dela eta, bainugeletan tresna sanitarioen teknika hobetu da dutxa, iturri eta komun eko-eraginkorrekin.

Teknologia aurrerapenak komuneko ohiturak errazten ditu, erosotasuna bainugelara eramaten du eta hobeto bizitzen laguntzen gaitu. Aprobetxatu eta gozatu!

**XIV-XV. mendeetako komun bat.**

**Gaur egungo komuna.**

FULDAIN
FARMAZIA

# Zistitisa

Gernu-infekzio baxuak zistitis izena hartzen du. Kasu gehienetan, bakterioek sortua izaten da, uretratik barrena gernu-maskurira iristen diren bakterioek.

Hainbat faktorek laguntzen dute infekzio hau agerrarazten:

- Emakume izateak.
- Sexu jarduerak.
- Haurdunaldiak
- Aldaketak maskuriaren funtzioan.
- Gernu-buxadurek (harriek).

Hauek dira zistitisaren sintomak: mina txiza egitean (disuria), gernu-isurtze ugari baina kantitate urrikoak (polakiuria), txiza egiteko larritasun handia (premiazko txizagalea), maskuria guztiz hustu ez izanaren sentsazioa (maskuriko tenesmoa) eta pubis gaineko mina.

Diagnostikoa gernu-analisiaren bidez egiaztatzen da, horrela ezagutzen da, gainera, infekzioa sortu duen germena. *E. colia* da maiztasun handienez zistitisa eragiten duen bakterioa.

**Tratamendua**

Tratamenduaren helburua da gaitza eragin duen bakterioa gernu-aparatutik kanporatzea eta ureterretatik barrena giltzurrunetara irits dadin ekiditea, maila horretako infekziorik gerta ez dadin (pielonefritisa).

Tratamendua antibiotikoak hartzean datza; horiek alda daitezke mikroorganismo eragilea bat edo bestea dela uste bada.

Zenbait kasutan zistitis errepikakorra sortzen da. Gehienetan, germenak antibiotikoaren eragina jasan dezakeelako gertatzen da eta horrek infekzioa sortzen duelako, edo baita tratamendua modu egokian ez egiteagatik ere (adibidez, medikuak agindutakoa baino epe laburragoan egin bada).

**Gomendioak**

- Likido ugari edan.
- Mantendu tratamendua agindutako denbora osoan.
- Sintomarik txikienaren aurrean, kontsultatu zure medikuari edo botikariari.
- Saihestu automedikazioa.
- Sukar handia, ondoeza edo gerrialdeko mina edukiz gero, berehala kontsultatu zure medikuari.
- Tratamendua hartuta ere sintomek jarraituz gero, kontsultatu zure medikuari edo botikariari.

AITOR IRIGOIEN
BEÑAT GEREKA
MIKEL MUGIKA

# Denboraren makina: Elkanoren lehorreraTXea II

Azkeneko aldiz Sanlucar de Barramedako portuan utzi genuen Elkano. Gu portura ziztu bizian iritsi arren, bera jada itsaso zabalerantz abiatuta zegoen, Magallanesen espedizioan. Pozik geratu ginen, bera topatzeko gai izan ginelako, eta itsas bidaia ospetsuaren aurretik zer gertatu zitzaion jakitea lortu genuelako.

Hala ere, ez ginen erabat asebeteta geratu: ez genuen berarekin hitz egiterik izan, ezta nora zihoan jakiterik ere. Horrek ezin zuen horrela geratu. Beraz, ARTZAPEk abuztuan eman ohi digun oporraldia sakrifikatu eta lanean jarri ginen, beste denek oporrez gozatzen zuten bitartean. "Marka dek gero beti horrela ibili behar izatea!". Hala, denboraren makina garajeko hauts artetik atera, eta Andaluziarantz abiatu ginen berriro, zerbait historikoa topatzear ginen sentsazioarekin.

Hango txibizaleekin gogor negoziatu ostean, *motortxiki* bat alokatu eta arraunean jarri ginen indartsu. Artean, urruti bazen ere, espedizioko barkuak ikus genitzakeen. Ixkutuan eta gehiegi gerturatu gabe jarraitu behar genituen...

Galdera asko genituen buruan bueltaka: nun zegoen gure JuanXe? Benetan munduari bira eman ote zion? Ez ote zen N. Armstrongen ilargirako ustezko bidaia bezala *montaje* bat izango dena? Zer pasa zen benetan bidaia hartan? Erantzunak laxter jakingo genituen.

Berehala mugimentu arraroak sumatzen hasi ginan. Espedizioko barkuak atajuak hartzen hasi ziren, eta egun destinu turistiko ospetsu direnetara zuzentzen: Hawai, Bali... Zertara ordea? *Motortxiki*a haitz tarte batean aparkatu, eta ikertzera joan ginen. Ikusitakoak zur ta lur utzi gintuen: turismoa egiten ari ziren espedizioko marinel guztiak! Sinestezina zen! Han zeuden, palmeren azpian, bainujantzi arrosa eta berde fosforitoekin, edari exotikoak eskuan zituztela —mojitoak, caipirinhak, sex on the beach, daikiriak...—. Batzuk pareoekin zihoazen, besteak purua esku batean eta kono formako zenizeroak bestean zituztela. Batzuk Luis Enrique entrenatzailearenak ziruditen *txaflis* urdinekin, besteak *pajaritos por aki* dantzatzen, bazen nudismo iten ari zenik ere...

Han ez zen turismofobiarik sumatzen, inork ez zien "*tourist go home!*" oihukatzen, eta marinelak ere ederki zebiltzan, tripa bapo beteta, inguru haietako neska beltxaranen atzetik *baba* dariola. Eta horrela jarraitu zuten, eguna joan eta eguna etorri. Azkenean, 20 baino gutxiagok soilik erabaki zuten bueltatzea, joan ziren ataju beretik, inolako birarik eman gabe. Gainontzekoak oporretan geratu ziren, bakoitza uharte eta toki desberdin batean.

Teoria denak hankaz gora uzten zituen gure aurkikuntzak. Orain arte gai honetan adituak ziren F. Txueka eta G. Berasaluze baino ere gehiago genekien, atera kontuak! Munduari zabaldu behar genion informazio konfidentzial eta arriskutsu hau, ta horretarako Wikileakseko gure lagun Assangeri froga denak pasa nahi genizkion, baina Ekuadorko enbaxadatik irten ezinik zen oraindik, eta ondorioz, azkenean ARTZAPEn publikatzea erabaki dugu. Honek prezio garestia suposatu digun arren, exilioarekin ordaindu behar izan baitugu: batzuk Zarautzen ta besteak Donostin.

EDURNE IRIGOIEN

# PLIST & PLAST

GOIATZ LAZKANO

# KUIA ETA JENGIBREA

Udazkena bertan dugu jada eta urtaro honi indarrez ekiteko ideia batzuekin natorkizue. Indarrez diot urtaro honek dituen ezaugarrien ondorioz (argi orduak gutxitzea, tenperatura jaistea, egunerokotasunaren aldaketa...), gure gorputzak ere aldaketak jasaten dituelako (nekea, tristura, ilea erortzea...).

Txinatar medikuntzaren arabera, udazkenaren zaporea pikantea da, barne energia mugitzen laguntzen baitu. Horretarako aproposa dugu jengibrea: nahiz eta elikagaia ez izan, espezia baizik, lurrak ematen digun sendagai natural potentea da. Hainbat onura eskaintzen dizkigu baina orain interesatzen zaigunari lotuta, gorputza bero mantentzen lagundu, antsietate maila murriztu eta sistema inmunologikoa indartzen du.

Bestalde, udazkena lurreko elementuei estuki lotuta dago, beraz, garai honetan lurrak emandako edozein elikagaik lagunduko liguke urtaroari aurre egiten —garaian garaikoa!—, hala nola, kalabazak edo kuiak. Urdaila eta birikak osasuntsu mantentzen laguntzen digu, baita azalaren osotasuna bermatzen ere beta karotenoei esker. Gure animoan badu zeresana izaterik, triptofano izeneko aminoazidoetan aberatsa baita eta hau beharrezkoa baita serotonina, zoriontasunaren hormona bezala ezaguna, sortzeko.

Bi osagai hauekin ohikoena krema edo pure moduko bat egitea izango litzateke; gozozaleentzat ere ezagunak dira kalabaza eta jenjibrezko gailetatxoak. Zerbait berria proposatze aldera, hanburgesak egitera animatzen zaituztet.

Elikagaiak aurkeztuta, oraingo honetan denak errezeta begano eta glutenik gabeko batean biltzea bururatu zait.

## *Kuia eta jengibre hanburgesak*

**Osagaiak:**

- Baratxuri ale bat.
- Jengibre puska txiki bat —baratxuri alearen neurrikoa—.
- 750 g. kalabaza.
- Arrautza bat edo garbantzu-irin koilarakada urarekin nahastuta —aukera beganoa—.
- Olo malutak, arroza edo kinoa —masa loditzeko edozein erabil daiteke—.
- Gatza eta piper beltza.

**Prozedura:**

- Kalabaza birrindu eta baratxuria zein jengibrea txiki-txiki egin.
- Arrautza edo urarekin nahastutako garbantzu irina gehitu, baita gatza eta piper beltza ere.
- Oloa edo arroza/kinoa —egosita— erantsi eta masa bat egin.
- Utzi 20 bat minutu hozkailuan.
- Pusketak hartu, borobildu eta hanburgesa forma eman.
- Labean edo zartaginean egin daitezke.

Niri oliba beltzak eta perretxikoak txikituta gehitzea gustatzen zait eta gainetik sesamo birrinduz estaltzea frijitu edo labera sartu aurretik; sormena libre!

On egin!

# 2018ko URRIA

Agenda www.artzape.eus webgunean eguneratzen dugu. Adi egon!

**3** Asteazkena
**Marrazketa/estanpazio tailerra**
**Lekua:** *liburutegia*
*Maite Rosendek 5 eta 15 urte arteko haur eta gaztetxoei eskainitako tailerra, "Printze Txikia" liburua gaitzat hartuta.*

**6** Larunbata
**Karta-joko txapelketa**
**Ordua:** *16:30-19:45*
**Lekua:** *Katxopa gaztelekua*

**8** Astelehena
**Euskaraldia sustatzeko bilera irekia**
**Ordua:** *19:00*
**Lekua:** *Alhondiga*

**13** Larunbata
**Itsasotik herrira jaialdia**
**Ordua:** *goizean*
**Lekua:** *herrian zehar*
**Antolatzailea:** *Urola Kostako Udal Elkartea, eta Aia, Orio, Zarautz, Getaria eta Zumaiako udalak Itsasoa gaitzat hartuta, sormen eta kultura nahiz gastronomia lantzeko ekintza ezberdinak egingo dira ostiral eta larunbatean eskualdean.*

**II. Getariako Mendi Duatloia**
**Ordua:** *15:00*
**Antolatzailea:** *Getaitri Triatloi Taldea*
*VII. Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuitoaren barruko lasterketa.*

**13-21** Lr.-Ig.
**Mendi astea**

**14** Igandea
**Eskulan tailerra**
**Ordua:** *16:30-20:00*
**Lekua:** *Katxopa gaztelekua*

**14-18** Ig.-Og.
**Asturiasera bidaia**
**Antolatzailea:** *Arrantzale Zaharren Elkartea*

**19** Ostirala
**Eskulan tailerra**
**Ordua:** *17:00-20:00*
**Lekua:** *Katxopa gaztelekua*

**20** Larunbata
**Jolasak eta eskulanak**
**Ordua:** *12:15*
**Lekua:** *plazan edo frontoian*
**Antolatzailea:** *Urritza Aisialdi Taldea*

**Sukaldaritza tailerra**
**Ordua:** *16:30-19:45*
**Lekua:** *Katxopa gaztelekua*

**21** Igandea
**Mendi-irteera: Urdunbide-Gorbeia-Murua**

**Agorregiko errotara irteera**
**Lekua:** *Aia*
**Antolatzailea:** *Getariako Guraso Eskola*
*Errotaren funtzionamendua ezagutu, taloak egin eta dastatuko dituzte. Guraso Elkarteko bazkide helduek 6€ ordaindu beharko dituzte, haurrek 5€; bazkide ez diren helduek 10 € eta haurrek 9€. Haur bakoitzeko pertsona arduradun bat eskatzen da.*

**22** Astelehena
**Odol-ematea**
**Ordua:** *19:00-21:00*
**Lekua:** *anbulatorioa*
**Antolatzailea:** *Gure Txeru*

**25** Osteguna
**Eskola feminista: *Feminismoa Getarian orain! Oinarrizko formazio feminista***
**Ordua:** *18:30-20:30*
**Antolatzailea:** *Eskubide Sozialen Karta, Getariako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia*
*Emagin Elkarteak emango du ikastaroa urritik martxora, hileko azken ostegunetan, urrian eta abenduan salbu. Abenduan hilaren 20an izango da. Eskola doan izango da baina plaza mugatuak dira, beraz, izena eman behar da Harritarten.*

**25** Osteguna
**Jon Maia bertsolariaren solasaldia**
**Ordua:** *19:00*
**Lekua:** *Ulpiano Etxea*
**Antolatzailea:** *Getariako Udala*
*Bere bizipenak oinarri, lehengo eta oraingo migrazioak eta euskararekiko harremanak aztertuko ditu Euskaraldiaren baitan.*

**27** Larunbata
**Pintura eguna**
**Ordua:** *11:00-13:00*
**Lekua:** *plaza*
**Antolatzailea:** *Getariako Guraso Elkartea*

**Eskulan tailerra**
**Ordua:** *16:30-19:45*
**Lekua:** *Katxopa gaztelekua*

**28** Igandea
**Pelikula**
**Ordua:** *16:30-20:00*
**Lekua:** *Katxopa gaztelekua*

## Cristobal Balenciaga Museoa

**12** Ostirala
**Familientzako tailerrak: *E-ehunak eta programazioa***
**Ordua:** *11:00-13:30*
*Paola Guimerans artista, hezitzaile eta teknologo sortzaileak 6 eta 12 urte bitarteko umedun familiei emango die tailerra. Gaztelaniaz izango da; 5€ ordaindu beharko dituzte haurrek eta 7€ helduek. Ehun elektronikoetara gerturatzeko aukera emango du, eta elektronikaren nahiz blokeetan oinarritutako programazio bisualaren funtsezko ezagutzak eskainiko ditu.*
*Informazio eta erreserbak 943 008 840 edo didaktika@cristobalbalenciagamuseoa.com-en.*

**12-28** Lr.-Ig.
**DIY tailerrak: *Moda eta teknologia***
**Ordua:** *10:00-18:00*
*Paola Guimerans artista, hezitzaile eta teknologo sortzaileak emango du urriko azken hamabostaldiko larunbat eta igande guztietan tailer hau. Helburu izango du janzteko proiektuak sortzeko beharrezkoak diren metodologiak, do-it-yourself teknikak eta tresna digitalak erakustea parte-hartzaileei. Hauek 230€ ordaindu beharko dute.*
*Informazio eta izen-ematea 943 008 840 edo didaktika@cristobalbalenciagamuseoa.com-en.*

Saiazgetaria
HOTELA

BILERA GELA DAUKAGU

Roke Deuna 25
20808 **Getaria**
Gipuzkoa

T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

OSTOLAZA TALLERRA
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20.
lonja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110 / 675 707 203
ostolazatallerra@gmail.com

ERABERRI
ERABATEKO BERRIKUNTZAK
680880905
676532067
GETARIA
www.eraberri.com

Josune Uzin Berasaluze
Fisioterapeuta
EFEO zenbakia: 1.100
eskura
fisioterapia zentroa
697 961 208
Elkano kalea 9, behea

BABEXA
Getariako dendari elkartea

Ganix Arakistain
OSTEOPATIA
943253634

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK
IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

PUBLIZITATE TARIFAK

| Tamainak | Zenbatekoa |
|---|---|
| 4,3 x 4 | 12 euro |
| 9 x 4 | 24 euro |
| 13,6 x 4 | 36 euro |
| 9 x 8 | 48 euro |
| 13,6 x 8 | 72 euro |
| orri erdia | 96 euro |

FAMILIA ETA TALDEENTZAT
ESKAINTZA BEREZIAK
943 83 36 41
www.itsasoa.eus | www.albergue-getaria.com
arazi@arazi.eus

# www.artzape.eus

## egin bazkide

Txeruko postontzian // info@artzape.eus

| | |
|---|---|
| Izen-abizenak: | |
| Helbidea-Herria: | |
| Telefonoa: | |
| Helbide elektronikoa: | |
| Kontu zenbakia: | |
| Banketxea: | |

Urtean 25€ - Getariatik kanpo bidaltzea 30€


SIZ

Servicios Informáticos Zarautz

Ekipo informatikoen salmenta

Mantenua

Informatika akademia

Webguneen diseinua

Urdaneta 2, behea · 20800 Zarautz
Tel. 943 894 014 · fax 943 133 410
www.zarautz.com · siz@zarautz.com